# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Bilboko udaletxearen eta Deustuko auzoaren artean itsasadarrari jarraitzen dion bidegorrian gaudenean Guggenheim museoaren ikuspegi onenetako bat izango dugu, itsasadarraren beste aldean agertuko baita. Kamera prest eduki.

*En nuestro discurrir por el carril bici que sigue la ría entre el ayuntamiento de Bilbao y el barrio Deusto se nos mostrará una de las mejores estampas del museo Guggenheim que aparecerá imponente al otro lado de la ría. Ten preparada la cámara.*





Pobeña eta Cobaronen artean Itsaslur Pasealekua dago. Bizkaiko kostaldeko bide berde ederrenetako bat da, meatze-tren zahar baten trazadurari jarraitzen diona. Kostaldeko eta labarretako ikuspegiez gozatzeko bide-saria eskailera-tarte handi bat da, bizikletatik tiraka egin beharko duguna. Sasoitsu sentitzen bazarete, ez geratu ezagutu gabe.

*Entre Pobeña y Cobarón encontramos el Paseo de Itsaslur. Se trata de una de las vías verdes más bonitas de la costa de Bizkaia, que discurre por el trazado de un antiguo tren minero. El peaje a pagar para disfrutar de las vistas de la costa y los acantilados es un buen tramo de escaleras que nos obligaría a tirar de la bicicleta. Si os veis con fuerzas, os animamos a que no os lo perdáis.*

Ez geratu Balmasedako alde zaharra ikusi gabe, San Severino Elizaren eta Zubi Zaharraren artean. Cadagua ibaiaren bazterrean kokatuta dauden kale eta kantoiek eskaintza kultural eta gastronomiko oparoa biltzen dute. Gainera, maiatzaren erdialdean joaten bazara, Euskadin egiten diren Erdi Aroko Azoka onenetako batean murgiltzeko aukera izango duzu.

*No te pierdas la parte vieja de Balmaseda entre la Iglesia de San Severino y el Puente Viejo. Sus adustas calles y cantones situados a la orilla del Cadagua, albergan una nutrida oferta cultural y gastronómica. Además si pasas por la villa a mediados de mayo podrás disfrutar de una de las mejores ferias medievales de entre las que se celebran en Euskadi.*



## Bilbao > Balmaseda

| | |
|---|---|
| **Distantzia:** / ***Distancia:*** | 37,6 km |
| **Desnibela:** / ***Desnivel:*** | 264 m |
| **Denbora, gutxi gor.:** / ***Tiempo aprox.:*** | 4h |
| **Zailtasuna:** / ***Dificultad:*** | Txikia / *Baja* |

| | |
|---|---|
| **Zolatutako bide-zorua:** / ***Firme pavimentado:*** | 83 % |
| **Zolatu gabeko bide-zorua:** / ***Firme no pavimentado:*** | 17 % |
| **Aldapa handieneko tarteak:** / ***Tramos de gran pendiente:*** | Arbuio |




# 4B Etapa
# BILBAO > BALMASEDA

km

**0** **ALDE ZAHARRA (BILBO).** Bilbo bizikletaz gurutzatzeko eta bertatik ateratzeko Cadagua ibaiaren bidea bilatuz, gomendatzen dizuegu itsasadarrari jarraitzea eskuinaldetik, Arriaga antzokiaren albotik pasatuz eta udaletxearen aurrean hasten den eta Deustura doan bidegorria hartuz.

**3,8** **DEUSTU (BILBO).** Biribilgune handi batera iristerakoan, ezkerralderantz biratzen duen eta itsasadarra gurutzatzen duen Euskalduna zubitik igo behar dugu. Beste aldean gaudenean, berriz ere itsasadarraren mailara jaisten gara eta Euskalduna ontziola zaharraren dikeen albotik pasatuz; gaur egun Bilboko Itsas Museoaren ontzi-erakusketa dago bertan. Olabeaga auzoan gaude. Hemendik, bidegorria duen pasealeku atsegin batek itsasadarraren alboan jarraitzen du Zorrotza auzoraino.

**7,1** **ZORROTZA (BILBO).** Pasealekuaren amaierara iristerakoan, bidegorria (zoladura gorria duena) espaloitik ezkerralderantz banantzen eta igotzen hasten da. Itsasadarretik banandu behar dugu behin betiko, eta gorantz joango gara pasabide baten bitartez; pasabideak kiribila egiten du eta N-634 errepidean kokatzen gaitu, biribilgune baten parean Zorrotza auzoaren sarreran. Ezkerretara joko dugu BI-3742 errepidetik, Balmaseda-Kastrexanarako noranzkoan.

**10** **URGOZO (BARAKALDO).** Bidearen seinale ofizialak berriz ere aurkitzerakoan, Cadagua ibaiaren gaineko Deabruaren Zubia gurutzatzen dugu Urgozo auzora iristeko. Trenbidera iristerakoan, Cadaguaren Ibilbidea Kostaldeko Bidetik banantzen den puntura iristen gara. Frantziako Bidearen bila joateko, aurrerantz jarraitzen dugu, trenbidea gurutzatu gabe, Balmasedarantz.

**12** **IRAUREGI (ALONSOTEGI).** Ermitaren albotik pasa eta auzoa gurutzatu ondoren, berriz ere Cadagua ibaia gurutzatu behar dugu BI-3651 errepidera iristeko. Arbuion industria-poligono batera iritsi baino lehen, ezkerretara dagoen pista batek bidegorri baterantz igotzeko aukera emango digu; bidegorri horrek La Roblako trenaren trazadura zaharrari jarraitzen dio eta La Quadrara eta ondoren Sodupera eramango gaitu.

**20,5** **SODUPE (GUEÑES).** Eskuinalderantz bira egingo dugu berriz ere Cadagua ibaira joateko, eta gurutzatu gabe gorantz jarraituko dugu, eta Santxosolo auzotik pasatu ondoren Gueñesko gune nagusira iritsiko gara, eta oraingoan bai, Cadagua ibaia gurutzatuko dugu eta gure bizikleta Arangurenerantz bideratuko dugu.

**29,9** **MIMETIZ (ZALLA).** Zallan, gure ezkerraldean Lanzagorta etorbidea bilatu behar dugu, eta beste bidegorri batera eramango gaitu; bidegorri horrek, Bolunburuko atsedenlekua igaro ondoren berriz ere BI-3651ean kokatuko gaitu Herrera auzora iritsi baino lehen.

**34,8** **HERRERA (ZALLA).** Eskola zaharren aurrean, oinezkoentzako Bidearen seinaleek eskuineranzko bira bat egiteko adierazko digute. Errepidetik ateratzen gara auzo-bide batean barrena, eta berehala pasealeku egokitu bihurtuko da eta Balmasedako hiribilduraino eramango gaitu.

**37,6** **BALMASEDA**

km

**0** ***CASCO VIEJO (BILBAO).*** *Para atravesar y salir de Bilbao en bicicleta buscando la ruta del Cadagua, también os recomendamos seguir la ría por su margen derecha pasando junto al teatro Arriaga y tomando el carril bici que comienza frente al ayuntamiento y desemboca en Deusto.*

**3,8** ***DEUSTO (BILBAO).*** *Al alcanzar una gran rotonda, debemos ascender por el puente Euskalduna que gira a la izquierda y cruza la ría. Una vez al otro lado, descendemos de nuevo al nivel de la ría pasando junto a los diques del antiguo astillero Euskalduna, que actualmente albergan la exposición de barcos del Museo Marítimo de Bilbao. Nos encontramos en el barrio Olabeaga. Desde aquí, un agradable paseo con carril-bici continúa junto a la ría hasta el barrio de Zorrotza.*

**7,1** ***ZORROTZA (BILBAO).*** *Llegando al final del paseo, el carril bici (con pavimento rojo) se separa de la acera hacia la izquierda empezando a ascender. Nos debemos separar definitivamente de la ría ganando altura por medio de una pasarela que haciendo un tirabuzón nos coloca en la N-634 a la altura de una rotonda en la entrada del barrio de Zorrotza. Giramos a la izquierda por la BI-3742 dirección Balmaseda-Kastrexana.*

**10** ***LAS DELICIAS (BARAKALDO).*** *Al encontrar de nuevo la señalización oficial del Camino, cruzamos el Puente del Diablo sobre el río Cadagua para acceder al barrio de Las Delicias. Al llegar a las vías del tren llegamos al punto donde se separan la Ruta del Cadagua del Camino de la Costa. Para ir en busca del Camino Francés, continuamos de frente sin cruzar las vías hacia Balmaseda.*

**12** ***IRAUREGI (ALONSOTEGI).*** *Tras pasar junto a la ermita y atravesar el barrio debemos cruzar de nuevo el río Cadagua para plantarnos en la carretera BI-3651. Antes de alcanzar un polígono industrial en Arbuio, una pista a la izquierda nos permitirá ascender a un carril-bici que discurre por el antiguo trazado del tren de La Robla y que nos conducirá a La Quadra y después a Sodupe.*

**20,5** ***SODUPE (GÜEÑES).*** *Giramos a la derecha para buscar de nuevo el río Cadagua sin cruzarlo para seguir aguas arriba y, tras pasar el barrio de Santxosolo, alcanzaremos el núcleo principal de Güeñes cruzando esta vez sí, el Cadagua y conduciendo nuestra bicicleta hacia Aranguren.*

**29,9** ***MIMETIZ (ZALLA).*** *En Zalla debemos buscar a nuestra izquierda la Avenida Lanzagorta que nos conducirá a un nuevo carril bici que, tras pasar el área recreativa de Bolunburu nos plantará de nuevo en la BI-3651 antes del barrio de La Herrera.*

**34,8** ***LA HERRERA (ZALLA).*** *Frente a las antiguas escuelas la señalización del Camino a pie nos indicará un giro a la derecha. Salimos de la carretera por un camino vecinal que pronto dará paso a un paseo acondicionado que nos conducirá hasta la villa de Balmaseda.*

**37,6** ***BALMASEDA***

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Getxorako noranzkoarekin Deustura iristerakoan, ez diogu jarraitu behar itsasadarraren albo-alboan dagoen trazadurari eskuinaldetik, nahastu egingo gintuzkeelako Zorrotzaurreko penintsularen amaieran irteerarik gabeko puntu batera eramanez. Morgan kalea bilatuko dugu, eta ez dugu utziko San Inazio auzora iritsi arte. Kontuz, bizikletatik jaitsi beharko garelako gure ezkerraldeko espaloian barrena tarte txiki bat egiteko.

- *Al llegar a Deusto dirección Getxo, no debemos seguir el trazado justo junto a la ría por su margen derecha que nos engañaría llevándonos a un punto sin salida al final de la península de Zorrozaurre. Buscaremos la calle Morgan para no dejarla hasta el barrio de San Ignacio. Atención, ya que habrá que bajarse de la bicicleta para discurrir un pequeño tramo por la acera a nuestra izquierda.*

- Zubi esekian, bizikletek transbordadorearen estali gabeko zatian sartu behar dute, autoek gurutzatzen duten toki berean. Behin transbordadorean gaudela, itxaron egin beharko dugu txartela eskaintzeko eta dagokion tarifa kobratzeko gu gauden tokitik pasatzen diren arte.

- *En el puente colgante, las bicicletas deben acceder a la parte descubierta del transbordador donde también cruzan los coches. Una vez a bordo, deberemos esperar a que pasen por nuestro sitio a ofrecernos el billete y cobrarnos la tarifa correspondiente.*

- Cadagua ibaiaren ibilbidean, Kobetamendiko tartea salbu, zeina saihestu egingo dugun Olabeagatik Zorrotzarako pasealekutik, oinezkoentzako Bidearen seinaleek ia beti gurekin jarraituko dute Balmasedaraino.

- *En la ruta del Cadagua, a excepción del tramo por el monte Kobeta, que evitaremos por el paseo de Olabeaga a Zorrotza, la señalización del Camino a pie nos acompañará casi todo el tiempo hasta Balmaseda.*

# TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo Bulegoa / *Oficina de Turismo* | |
| Bilbao | 94 479 57 60 / 94 478 92 02 |
| Barakaldo (BEC) | 94 499 58 21 |
| Portugalete | 94 472 93 14 |
| Balmaseda (Enkartur) | 94 680 29 76 |
| Claret Enea aterpea / *Albergue Claret Enea* | 94 651 01 71 / 609 087 620 |
| La Arena hondartzako informaziogunea / *Punto de información turística Playa de La Arena* | 94 680 29 76 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea / *Asociación de Amigos del Camino de Santiago* | 94 679 20 99 / 687 529 606 |
| Bizkaiko Aterpetxezain Boluntarioen Elkartea / *Agrupación de Hospitaleros Voluntarios de Bizkaia* | 609 031 526 |
| Larrialdiak / *Emergencias* | 112 SOS DEIAK |



